**AZKEN AGURRA / THE LAST GOODBYE** EMANALDI BEREZIA - LEHIAKETATIK KANPO • **Espainia**

Koldo Almandoz (zuzendari eta gidoilaria)
Iñigo Azpitarte eta Izaro Nieto (aktoreak)
Marian Fernández Pascal (ekoizlea)

SERGIO BASURKO

Heriotza abiapuntu hartuta, bizitzaz, porrotez eta bigarren aukerez hitz egiten du Koldo Almandozek *Azken agurra* filmean. Zinemagileak bere hirugarren film luzea aurkeztu du Zinemaldian, umore beltza eta malenkonia uztartzen dituen istorioa. Filma euskaraz osorik filmatu du, eta Donostiako paisaiak dira istorioaren agertokia.

Hileta laikoen enpresa baten nagusia zarenean; mozkor gidatzeagatik gidabaimena kendu dizutenean; 25 urte gazteagoa den praktiketako ikasleaz maitemintzen zarenean; zure alaba, berak uste zuen aita ez zarela konturatzen hasten denean. Dirua zor diozun boxeolari ohia zure atzetik dabilenean; heriotzak bizitzak baino interes gehiago pizten dizutenean... Zer atera daiteke gaizki?

“Nire asmoa hasieran tipo hori amildegiaren ertzean kokatzea zen, baina istorioak aurrera egin ahala, ikusleei berarekiko nolabaiteko samurtasuna sentiaraztea”, azaldu du Almandozek.

Filmaren heriotzarekiko begirada ez da guztiz fikziozkoa. Proiektua lantzen ari zela, Almandozek ama galdu zuen, eta bizipen horrek ezinbestean



Marian Fernández, Koldo Almandoz, Izaro Nieto eta Iñigo Azpitarte.

ULISES PROUST

Heriotza bizitzaz hitz egiteko aitzakia

beste dimentsio bat eman zion filmari. Heriotza ez zen, beraz, soilik gidoiaren abiapuntu edo gai narratibo bihurtu; zuzendariaren beraren bizitzan ere oso presente egin zen filmaren sorkuntza prozesuan. Almandozek

“gizon helduen miseria txikiez” hitz egiten du, eta horren atzean dolauren esperientzia pertsonala ere antzematen da.

Azken agurra heriotzari buruzko filma da, baina, batez ere, bizitzen ja-

rraitzeko moduz ari da. Porrot baten ondoren beste bat etor daiteke, eta hala ere badira aurrera egiteko arrazoiak. Batzuetan, baita barre egiteko ere. “Unibertso berezi bat sortu nahi nuen. Eta egia da heriotzaz hitz egiten ditzutenean, halaberharrez hitz egin behar duzula bizitzaz”.

Hizkuntzari dagokionez, Almandozek ez du euskara hautu estrategikotzat aurkeztzen, berezkoa duen adierazpide gisa baizik. “Hazi naizen eta nire proiektuak lantzen ditudan hizkuntza da. Nire erreferentziako mundua da”, esan du.


Bestalde, Almandozek “kiroltasunez” hartu du Donostian lehiaketatik kanpo geratu behar izatea eta, aldiz, Varsoviako zinema-jaialdiko sail ofizialean lehiatzeko egokitu izana. Zuzendariarentzat, film baten ibilbideak baditu halako kontraesanak eta jaialdi bakoitzak bere irizpide eta logikak ditu.

Donostia, gainera, ez da filmaren kokaleku hutsa. Almandozek hiria beste begirada batetik erakutsi nahi izan du, paisaia gordinak istorioaren parte bihurtuz. Zentzu horretan, Zinemaldiko estreinaldiak badu itzuleraren kutsua: filma sortu eta filmatu den hirian aurkeztea.

Finding life in the shadow of death

In *Azken agurra* (*The Last Goodbye*), Koldo Almandoz transforms death into the unlikely spark for a bittersweet, gently humorous glimpse into everyday existence. Tomás Martínez runs a company that arranges secular funerals, but his own life is anything but settled: mounting debts, a revoked driving licence, a tangled ties with his daughter and a surprising pull toward a much younger intern force him to navigate a cascade of unexpected second chances. Starring Iñigo Azpitarte and Izaro Nieto, the film drifts gracefully between melancholy, tenderness and sly dark humour. Against the backdrop of Donostia and shot in Basque, Almandoz crafts a close-knit world where death and life walk side by side and even failure can open the door to something new.

GURE KONPROMISOA EUSKARAREKIN ZINEMALDIAN



GARAK eta GAUR8-k
Donostia Zinemaldiarekin elkarlanean,
euskarazko azpidatziekin proiektatutako
filmak babesten dituzte

NUESTRO COMPROMISO CON EL EUSKARA EN EL ZINEMALDIA

GARA y GAUR8 colaboran con Donostia Zinemaldia
patrocinando las proyecciones de películas
con subtítulos en euskara

GARA**GAUR8**
mila leiho zabalik